

Berbarotarra



2013 musua bete musu, musua bete musu...

Ez arrautza, ez kapoi!
Aurten jan du doi-doi...
Hor dator Olentzero,
argal, lirain eta lerdan...
zakua erdi-hutsik dakarren arren,
sari ugari dakar aurten!
Osasuna ez ahaztu, arren!
Beharrezkoena zer den?

Ba... euskaldun asko etxerako dituzu,
ez daukanari lana emaitzu...
eta, gero...

Denontzat opari, besarkadak usu;
Denontzat opari, maitasuna sutu;
Horri eta hari, noiznahi muxu...
Gehien balio duena, ez baita diru....
Gehien balio duena, ez baita luxu!

Urte
berri on!

**Urteko azken
bertso saioa**

ABENDUAREN 30EAN
22:00ETAN PLATERUENAN
SARRERA 8€ (BAZKIDEENTZAT 5€)





KAKORRATZEAN



Azaroa eta abendua artean egin dute ikastaroa. Hiru egunez orratza eta artilea lagun izan dutela puntu mota desberdinak egiten ikasi eta tertulia ederrez gozatu dute. Hiart Zamakona eta Saioa Agirre izan dira tailerraren emaleak. Beraiekin egon gara hitz egiten:

Nolatan pentsatu zenuten kakorratzean ikastaroa antolatzea? Hiart: Bazkide baten proposamenetik abiatutako ideia izan da.

Nola ikasi duzue zuek? Hiart: youtube-ko bideoen bitartez ikasi dut. Saioa: amarekin zertxobait eta gainontzekoa nik ere youtube-tik.

Beraz, bideoen bitartez ikasi duzue? Hiart: Bai. Horregaitik ari gara gu ere material hori sortzen. Sarean dagoen guztia gaztekeraz aurkitu dugunez, bideoen bitartez kakorratzean euskaraz ere ikasteko aukera zabaldu nahi genuen. Saioa: Lagungarri egiten da eta etxetik egin daiteke.

Gustura ibili zarete? Hiart: Oso gustura ibili gara. Saioa: 12 pertsona inguru aritu gara hiru egunez. Batzuk zerotik hasi ziren eta dena izan da berria beraiantzat, beste batzuk oinarritzko puntuak zekizkiten eta pixkat gehiago ikasteko balio izan die. Elkarri erakutsi eta laguntzeko aukera polita izan da.



Esther Garitaonandia Eskulanak oso gustuko ditut baina kakorratzean ez nekien. Ikasteko aukera polita zen eta izena ematea erabaki nuen.

Oihana Riesco Etxean youtube-ko bideoetatik zerbait ikasia nuen, baina hobetzeko gogoia nuen eta norbaitek pixka bat bideratzeko, nire zalantzak aurrez aurre hitz egiteko, elkarbanatzeko...

Arrate Elkoru Lehenengo saioan ezin izan nuen egon eta bigarrenegun pixkat galduago ibili nintzen, baina gustura aritu naiz. Eskertzekoa da etxean praktikatzeko bideoak euskaraz editatzen egin duten lana.

Ane Miren Gallastegi Gustura ibili gara. Nik uste baino askoz gehiago ikasi dut hiru egun hauetan.



ESKERRIK ASKO PARTE HARTU DUZUEN GUZTIOI!



Badira zazpi urte Barbaroko hezitzaileak Plateruenan umeentzako ludoteka antolatzen dutenik. Aldaketa asko izan dira urte eta ume askok hartu dute parte. Aisialdian ere euskaraz aritzeko gune eta aukerarik badagoelako, Olgetan jarraitzen dugu Plateruenan.

Zer da Olgetan?

Haur eta gurasoek aisialdiaz gozatzeko aukera aparta eskaintzen du baina, batez ere, umeek hezkuntza formaletik at euskaraz jolasteko eta harremantzeko gune aske bat da.

Aurten inoiz baino arrakastatsuago. Zenbat ume batzen dira? Ze egiten duzue?

48 umetik gora izaten ditugu ia egunero Olgetanen. Txoko finkoak ditugu: irakurketa txokoa, marrazketa txokoa, sinbolizazio txokoa eta mozorro

txokoa. Bakarrik, gurasoen partaidetzaz edo begiraleon laguntzaz, umeak txokorik txoko ibiltzen dira, askatasunez.

Nerea Unzalu, azken lau urteetan ibili zara, zer aldatu da?

Lehen bi urteetan eszenatoki gainean aritu ginen. Txokoetan banatzen genuen oholtza eta asteroko programazio bat egiten genuen. Hala ere, aforoa kontrolaezina zen eta kaos handia izaten zen. Nire hirugarren eta laugarren urteetan anfiteatroara mugitu ginen, txokoen sistema berberarekin eta aforoa kontrolatuz, 24 ume gehienez. Anfiteatroan lasaitasun handiegia genuen, ez baitzen ume askorik igotzen, ez zen leku aproposena. Aurtengo Olgetan guztiz berri da. Eszenatokira bueltatu gara altzari berri eta gune finkoekin. Egutero ume kopuru handia gerturatzen da,

OLGETAN LUDOTEKA

umeek eta gurasoek ludotekaren dinamika berria primeran jaso dute eta oso pozik gaude ematen dugun eskaintzarekin.

Nerea Fernandez lehenengo urtea. Nola zabilta? Nolako izango zela uste zenuen? Nolako da?

Arreko urteetan ikusitakoaren arabera ez nuen pentsatzen hainbeste ume parte hartuko zuenik. Aurten, hasierako jende kopurua normala zen, baina pixkanaka-pixkanaka guraso eta afitte eta amamen artean zabaldu egin da eta astero ume gehiago etortzen dira. Pozik nago dagoen arrakasta ikusita!

Irrien lagunak ikuskizunak egongo dira

Olgetan ludotekaz gain, Olgetan ikuskizunak ere martxan jarri dira Irrien Lagunen Klubeko eskutik. Hilean behin, igandez, antzerki desberdinak ikusteko aukera izango dugu Plateruenan. Sarreraren, bonoen edota antzerkien informazioa jasotzeko jo ezazue Barbaroko web gunera, edo zatozte zuzenean Olgetan ludotekara. Atsegin handiz jasoko zaituztegu.



XANTI Saguganbarako sagu ganberroa

Kaixo lagunok, argazkikoa Xanti da, aurtengo azokako saguganbaran okerkeriatan ibili den sagutxoa. Lehenengo egunetik hara eta hona ibili zen bertatik pasatu ziren ume eta gurasoen artean, gure hezitzaileak zoraturik. Liburu batetik bestera, istorio eta abentura ezberdinetan murgilduz. Irrien lagunekin, Pospolo eta Konpania pailazoekin eta ipuin kontalariarekin sekulako barreak bota zituen. Ilustrazio eta komikigintza-tailerrean parte hartu zuen, ijiroekin ere eskulanetan ibili zen, euskarazko pelikulak ikusi eta jolas piloak ezagutu zituen.

Nahiz eta hasieran batek baino gehiagok eurenera hurbiltzean sustoa hartu, Xantik lagun piloak egin zituen eta 4 egun horietan saguganbarak sekulako bizitasuna izan zuen.

Azkenengo eguna iritsi zenean hezitzaileek azoka ixteko eguna heldu zela aipatu zioten Xantiri, eta triste-triste jarri zen: -Bukatu dira ume eta gurasoekin istorio eta abenturak? Urtebete itxaron behar dut zuek berriz ikusteko? Zer egingo dut nik hemen bakarrik? - Lasai Xanti! -esan zion hezitzaileak-. Durangaldeko ikasleekin ipuinen artean jarraitzen dugu guk. Nahi izanez gero, gurekin etortzea daukazu. Xantiren aurpegia guztiz aldatu zen, eta arrapaladan, hezitzailearen hankatik gora amantaleko poltsikoan sartu eta saguganbarako argia itzali zuten datorren urtera arte.



DATORREN URTERA ARTE

